



**RASFF-EKO ALERTAK ETA**  
**JAKINARAZPENAK**  
**2006KO 2. LAUHILEKOA**


**elika**

Fundación Vasca para la  
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien  
Segurtasunarako  
Euskal Fundazioa

2006. urteko bigarren lauhilekoan, Europako Informazio Azkarreko Sistemak (RASFF) guztira **753 alerten eta jakinarazpen berri** eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura-iturriei dagozkien portzentajeak hurrengoak dira:

Kutsadura-iturriak	Portzentajea
Mikotoxinak / biotoxinak	%39
Kutsadura kimikoa	%32
Kutsadura biologikoa	%16
Metal astunak	%9
Pestiziden hondakinak	%4



Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kutsadura **Aflatoxinek** eragin dute (kasuen **%86**) eta, horrelakoetan, **kakahueteek** kutsaduren **%40** eragin dute. Bestalde, kakahueteak **Txinatik** eta **Argentinatik** etorri dira (kasuen **%24** eta **%22**, hurrenez hurren). Bigarren produkturik garrantzitsuena **pistatxoa** izan da. Horrek aflatoxinek eragindako kutsaduren **%36** eragin ditu, eta **Iranetik** etorri dira (**%90**).

Kutsadura biologikoei dagokienez, **Salmonella sp.**k kutsaduren **%39** eragin ditu. Kasuen **%21 S. typhimurium** espezieak eragin ditu, eta txerriak kasuen **%60**tan hartu du parte. Halaber, kasuen **%12,5 S. enteritidis** espezieak eragin ditu, eta **oilaskoak** zein **arrautzak** kasuen **%83**tan hartu dute parte. Kasu guztietan, hau da, **S. enteritidis** eta **S. typhimurium** espezieek eragindako kasuen **%100**ean, **Europatik** etorri dira produktuak. **Salmonella sp.**k eragindako kasuei dagokienez, **haragiak** eta **berorren eratorriek** kasuen **%56** eragin dituzte, eta kasuen **%61** **Europatik** etorri dira.


Kutsadura kimikoari dagokionez, **Koloragarriak** eta **Gehigarriak** izan dira eragile nagusiak (kasuen **%47**), eta gehigarriek kasuen **%72,5** eragin dituzte. Horrelakoetan, **zukuak** eta **frutazko karameluak** izan dira garrantzitsuenak (**%44**), eta horien **%44** **Europakoak** izan dira eta **%42** **Asiakoak**. Jakinarazpenen errudunen **%21** **arrain prozesatuak** izan dira. Bestalde, **Sulfitoak** izan dira kutsadura kimikoen eragileak

(kasuen %15); arlo horretan **ganba** europarrak izan dira eragile zuzenak (kasuen %58) bai eta **Hego Amerikakoak** ere (%28).

Metal astunak ere nabarmendu behar ditugu, **merkurioa** bereziki. Izan ere, horiek eragindako kutsadura kasuak areagotu egin dira nabarmen aurreko lauhilekotik hona. Gaur egun, metal astunek eragindako jakinarazpenak %41 izan dira, eta **marrazoak** eta **ezpata-arrainak** kasuen %61 eragin dituzte. Horien jatorria oso bestelakoa izan da.

<b>Micotoxinak/Biotoxinak</b>	291	<b>Aflatoxinak</b>	251 (%86)	kakahueteak	101(%40)	Txina	25 (%24)
				pistatxoak	90 (%36)	Argentina	23 (%22)
						Iran	81 (%90)
<b>Kutsadura biologikoa</b>	124	<b>Salmonella sp.</b>	48 (%39)	oilaskoa, arrautzak	5 (%83)	Europa	5 (%100)
		<i>S. enteritidis</i>	6 (%12,5)	txerria	6 (%60)	Europa	6 (%100)
		<i>S. typhimurium</i>	10 (%21)	haragia eta eratorriak	18 (%56)	Europa	11 (%61)
		<i>Salmonella sp.</i>	32 (%6)				
<b>Kutsadura kimikoa</b>	240	<b>Koloragarriak eta gehigarriak</b>	113 (%47)				
		Gehigarriak	82 (%72,5)	frutazko zukuak, karameluak	36 (%44)	Europa	16 (%44)
				arrain prozesatua	17 (%21)	Asia	15 (%42)
		<b>Sulfitoak</b>	36 (%15)	ganbak	21 (%58)	Asia	8 (%47)
						Europa	12 (%57)
						Amerika	6 (%28)
<b>Metal astunak</b>	69	<b>Merkurioa</b>	28 (%41)	marrazoa, ezpata-arraina	17 (%61)		
				Atuna	6 (%21)	Asia	5 (%83)

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdea hurrengoa izan da:



**Asiari** dagokionez, kutsaduren % **25ek Iranen** izan dute jatorria, ondoren **Txinan %17k**. **Europari** dagokionez, jakinarazpen gehien eragin dituzten herrialdeen artean **Turkia (%22)** eta **Espainia (%12)** izan dira.

Azkenik, Amerikako kontinentean, **AEB** eta **Argentina** nabarmendu behar ditugu (**%34** eta **%30**, hurrenez hurren).

Azkenik, Europako Erkidegoaren barruko jakinarazpenen portzentajea hurrengoa izan zen:

